

## **KOSTUEN EGITURA**

Gure enpresan ditugun kostuak honela egituratuta daude. Alde batetik, ordaindu beharko ditugun kostu finkoak lurzailarengatik jasotako mailegua hilero ordainu behar da. ETT-ei hilero ere bai ordaindu behar zaie eta hori kostu finkoen barruan sartzen da ere, hilabetero langileei ordaindu behar zaielako. Catering eta garbiketarako enpresa hilero ordaindu behar da baita ere.

Bestalde, kostu aldakorren barruan, erresepzioaren eta leku publikoen argia eta ura ordaindu behar da, eta kostu horrek hilero aldatzen dela deritzogu. Apartamendu bakoitzaren ure eta argia (elektrizitatea) bezero bakoitzak ordaindu behar ditu, gastu pribatuak direlako eta ez erabilpen publikorako. Erabilpen publikorako, komunitate guztietan bezala, bezeroek jarritako diruarekin komunitateko banku kontu bat irekiko da. Diru horrekin, eraikuntzan arazo bat egotekotan konponduko litzateke.

Horrez gain, zenbait zerbitsuen mantenimendua ez da hilero egin behar, gehienetan hiru hilabetetan behin egiten da; hau da, pistina edo gune berdeen mantenimendua noizean behin ordaindu beharko da eta horregatik kostu aldakorren artean salikatu dugu.

Arazo txikiak egoterakoan, esaterako elurtzen duela eta pala eta gatza erosi behar badira, kostu aldakorren artean jarriko genuke. Edo leku publikoetan eragozpenak gertatzen badira, konpontzeko kostuak baita aldakorrak izango litzateke ere.